



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

## TOKI-ERAKUNDEI ETA TOKI-IZAERAKO UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEI BEREN ARTXIBO-SISTEMA JARRI EDOTA SENDOTZEKO DIRULAGUNTZAK , 2017

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### XEDEA

Xedea diru-laguntzak emateko erregimena arautzea da, 2017ko ekitaldi honetan programak garatzeko. Programa horiek artxibo-sistemaren proiektu batean sartuta daude, artxibo-sistema propio bat ezartzea edo sendotzea esan nahi dute, edo artxibo sistema propio bat edukitzeko proiektuak lantzea.

\* Diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuek helburu berbererako emandakoekin

### ONURADUNAK

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak izan daitezke agindu honetan ezartzen diren diru-laguntzen onuradunak, eta horretan sartzen dira udalak, udalek baino lurralde txikiagoa hartzen duten entitateak eta toki-izaera duten udalaz gaindiko entitateak, betiere, legez eraturik badaude eta dagozkion erregistro eta administrazio-erroldean inskribaturik badaude. Kanpoan geratzen da lurralde historikoen sektore publikoa.

### DIRUZ LAGUNDUKO DIREN LAGUNTZAK

Deskribatzeko tresnak sortu edo hobetu. Funtsen deskribapena sustatzen duten programen bitartez, nahi deskribatzeko tresnak informatizatu nahi dituzten programen bitartez, zabalkunderako politika eraginkor baterako.

Dokumentu-funtsak baloratu. Funtsak gordetzeko edo ezabatzeko politika orokor baten atal gisa beti.

Artxiboko lokalak hobetu: bai kontserbazio-baldintzei dagokienean, eta bai dokumentu-funtzen kontsultari dagokienean ere.

Kultura-zabalkunderako artxibo-jarduerak.

Mankomunitateko artxibo-zerbitzuei eutsi.

Artxibo-dokumentuak, artxibo-funtsak eta dokumentu-bildumak

digitalizatzeko jarduerak, betiere antolatuta badaude eta euskarri informatikoan inbentarioa badaukate. Proiektu horiek betiko gordeko den artxibo digitala sortu beharko dute eta baita ere dagozkion kopia digitalak. Aurkezten diren proiektuek agindu honen A) eranskinean jasotako baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

## EPEA

Eskaerak aurkezteko epearen bukaera: **2017/08/11**.

## DOKUMENTAZIOA

- a) Memoria xehatua; aurkezten den programaren edo proiektuaren helburuak, jarduerak, epeak, aurrekontu xehatuak eta justifikazioa jasoko ditu.
- b) Aurkeztutako programa eta artxiboko lokalen deskribapena eta artxibo-zerbitzuan gordeta dauden funtsen identifikazioa (bertakoak nahiz kanpotik etorriak)
- c) Beste edozein erakunde publiko zein pribaturi helburu berberaz eskatutako diru-laguntzen zerrenda, erakundearen izena eta diru-laguntzaren egoera aipatuta (ezetsiak, erantzunaren zain ala emanak eta zenbatekoak) (bestelako finantzaketa-iturriak dokumentua).
- d) Diru-laguntza eskatzen duen erakundeak –eskabidea aurkeztu duen ordezkariaren nortasunaren gaineko datuak, eta baita ere Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan dauden bere bankuko datuei buruzkoak, azken hauek ordainketak egiteko, hala badagokio– baimena eman ahal izango du laguntzak kudeatzen dituen organoak gainerako datu edo dokumentuak eskuratu edo egiaztatu ditzan, bai bide presentziala erabiltzen denean bai elektronikoa erabiltzen denean ere, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenen kalterik gabe.

## ARAUDIA

[AGINDUA, 2017ko ekainaren 29koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, toki-erakundeei beren artxibo sistema jartzeko edota sendotzeko diru-laguntzak emateko modua arautu eta horretarako 2017ko ekitaldirako deia egiten duena.\(2017/07/11ko EHAA\).](#)